


IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA

**Igeldoko
Entitatea
martxan**



Kaixo herrikide!!!

Azken urteak berri honen zain pasa ditugu eta ilusioz kontatzen dizuegu ale honetan: Igeldoko Toki Entitate Txikia martxan da! Batzorde Kudeatzaileko ordezkariak izendatuta, ari dira pixkanaka pausoak ematen. Hori horrela, Sorrera Festa ederra ere ospatu zuten

hainbat eta hainbat herritarrek.

Bestalde, herriko eragileen azken kontuak eta deialdiak bildu ditugu: ikas-turte bukaerak, Festak, Euskaraldia, Udalekuak, batzarrak...

Ospakizun bat aipatu dugu lehen, baina bada 120 urte betetzear den igel-

doar bat ere: Meteorologia Behatokia. Erreportaje bat doakizue.

Horrez gain, ez dugu ahaztu behar maiatzarekin batera Udaberri Festa datorkigula. Aurten gainera, hilabete osoan zehar izango ditugu ekintzak. Datozen hilabeteetan badugu zeregina!

Eskolako jaialdia, umeen eguna... Gurasoen eskutik

Maiatzaren 8an egin zuten Guraso Elkarteko azken bilera.

Guraso Elkartek maiatzaren 8an egin zuen bere azken bilera eta bertan, hainbat gai dituztela eskuartean azaldu zuten. Alde batetik, ekainaren 14an Eskolako Jaialdia egingo dute eta hori antolatzen hastekoak dira.

Bestetik, herriko festak ere gero eta gertuago daude eta umeen eguna ere antolatzeko beharra adierazi zuten. Uztailaren 1ean izango da, hain zuzen.

Eskola Txikien festa Ezkio-Itsason

Aurten Ezkio-Itsason ospatuko da Eskola Txikien festa eta ekainaren 8an izango da. Azken urteetan bezala, Guraso Elkartek autobusa antolatuko du bertaratzeko. Gauzak gehiago zehaztean, bidaliko dute informazioa ohiko bideetatik.

Euskaraldiko txapak Itsas Aurren daude

Euskaraldia maiatzaren 15etik 25era izango da.

Euskaraldian parte hartu nahi dutenek txapa eskuratzeko aukera dute Itsas Aurren. Ordutegia: astelehen, astearte eta ostegunetan 15:00-19:00 tartean; eta asteazken eta ostiraletan 9:30-13:30 tartean.

Euskaraldia maiatzaren 15etik 25era izango da eta bertan parte hartzeko izen ematea zabalik dago Euskaraldiaren webgunean: euskaraldia.eus.

Hala ere, online izena emateko zailtasunak dituztenentzat, aukera dago Igeldon izen-emate orria betetzeko. Horretarako, kutxa bat eta eskuorriak daude Itsas Aurren eta IKOn. Izen-ematea maiatzaren 25era arte egongo da zabalik. Aurreko urteetan bezala, bi rol egongo dira aukeran: Ahobizi eta Belarriprest. Egin zuen aukera eta parte hartu!

Hasi dira Udalekuak prestatzen

Aurtengo uztailan ere, Udalekuak izango dituzte herriko umeek. Batzorde Soziokulturaleko kideak dabilta antolaketan eta pixkanaka gauzak lotzen ari dira. Egunei dagokienez, uztailaren 7tik 30era izango dira. Izen emateak egin dira dagoeneko eta 20 ume inguru ibiliko dira aurtengo Udalekuetan.

Orain, begiraleak aukeratu eta

plagintza egiten hasiko dira Batzordeko kideak. Espero dute aurreko urteetan bezala, ekintza ugari eta erakargarriak eskaintzea umei.

Zaintza zerbitzua ekainean

Eskola ekainaren 20an bukatuko dute herriko umeek eta ekainaren azken asterako zaintza zerbitzua

antolatzea baloratzen ari da Batzordea, eskaera bati erantzunez. Ekainaren 23, 25, 26 eta 27an eskainiko litzateke zerbitzua; 24a jai. Orri Informatibo hau bukatzerakoan, izen ematea martxan zegoen eta oraindik erabaki gabe zuten aurrera aterako den ala ez. Berri gehiago izatean, zabalduko dute ohiko bideetatik.

Paseatu eta proposamenak egin!

Kaxkoan zer falta den eta nola hobetu erabakitzeko, parte hartze prozesua martxan dago. Herritarrek ekarpenak egiteko bi ibilaldi antolatu dituzte.

Igeldoko Entitateak inbertsioak zentzu onean egin nahi ditu eta Kaxkoa nola hobetu erabakitzeko, parte hartze prozesu bat jarri du martxan. Hiritik At kooperatibaren zerbitzuak kontratatu ditu horretarako eta talde motorraren laguntzarekin, aurrera doa. Herriko eragileen ekarpenak ere jasotzen ari dira.

Bestalde, herritarren proposamenak ere bildu nahi dituzte eta horretarako ibilaldiak antolatu dituzte Kaxkoan zehar. Helburua da Kaxkoan zehar gune edo puntu desber-

dinetan geratuz, horien inguruko hausnarketak egin eta hobetzeko proposamenak egitea.

Maiatzean eta ekainean

Bi ibilaldi izango dira. Lehenengoa maiatzaren 31n izango da (larunbata) goizeko 10:00etan. Bigarrena, berriz, ekainaren 13an (ostirala) arratsaldeko 16:30etan. Plaza-tik abiatuko dira.

Galdeketa online

Ibilaldi horietan zuzeneko ekarpe-

nak egiteko aukera izango dute herritarrek, baina gerturatu ezin duenarentzat edo proposamen gehiago egin nahi dituenarentzat, online bidezko galdetegia ere egongo da.

Galdetegia oraindik ez dago prest, baina zehaztean, ohiko bideetatik zabalduko da (Whatsapp taldea, weborria...).

Igeldoko Entitatetik dei egiten diete herritarrei prozesuan parte hartzeko eta modu batera edo bestera, proposamenak egiteko.

Gutxi geratzen da festetarako

Jai Batzordea azken kontuak lotzen ari da San Pedro festak ospatzeko.

San Pedro jaiak ere gerturatzen ari dira eta Jai Batzordeko kideak azken kontuak lotzen ari dira. Festak, ekainaren 21-22ko asteburuan hasiko dira eta 27tik uztailaren 2ra izango dira egun nagusiak. Gutxi gorabeherako egitarauaren berri eman dute.

Igeldoko krosak ekainaren 21ean izango dira. Ekainaren 22an, berriz, antzerkia antolatu dute. Ekainaren 23an afari-merienda fajitekin eta San Juan sua izango dira. Ekainaren 27an hasiko dira ofizialki festak herriko ikasleen dantza eta trikitixa emanaldiarekin. Erromeria eta DJarekin parranda egongo da. Hortik aurrera, uztailaren 2ra bitarte egunero ekintza ugari prestatu dituzte: pintxo lehiaketa, oliba jaitziera, bazkari herrikoa, bertsolariak, bakarriketak, kontzertuak, erromeriak, herri kirolak, toka, boloak, pelota partiduak, demak...

Prestatzen hasi beharko dugu, hilabete eta erdi besterik ez da geratzen eta!

Lan eskaintza IKOn aritzeko

Interesatuak IKOra idatzi behar dute maiatzak 30 baino lehen.

IKOk langileen oporrak, bajak... betetzeko lan eskaintza jarri du martxan. Lanaldi osoko lanpostua izango da (astelehenetik larunbatera txandaka) eta 2 hilabeteko kontratua izango da gutxienez, uztailan hasita.

Curriculumak bidaltzeko edo eta zalantzak argitzeko igeldokoop@gmail.com helbidera idatzi behar dela azaldu dute maiatzaren 30a baino lehen.

Batzarra maiatzaren 25ean

Bestalde, datorren maiatzaren 25ean, igandean, urteko batzarra burutuko dute. Goizeko 11:30ean izango da (11:00etan lehenengo deialdia) Itsas Aurre kultur etxean. Batzarrean jorratuko dituzten gaiak eta deialdia aurrez bidaliko dizkiete bazkideei.



Igeldoko Entitateko batzordekideak: Eneko Dorronsoro, Iñigo Barandiaran, Iker Zinkunegi, Karmele Garmendia eta Pello Galarraga.

Pausoz pauso, martxa hartzen

Martxoaren 6an izendatu ziren Igeldoko Entitateko Batzorde Kudeatzaileko ordezkariak eta ordutik pixkanaka ari dira pausoak ematen.

Igeldoko Toki Entitate Txikia abenduaren 20an sortu bazen ere, ofizialki martxan jartzeko, lehenengo batzarra egin beharra zegoen eta Foru Aldundiak jarri behar zuen eguna. Azkenean, martxoaren 6an izan zen eta bertan Batzorde Kudeatzaileko ordezkariak izendatu eta presidentea aukeratu zituzten (Udal hauteskundeak egin bitarte). Honakoak dira Batzorde Kudeatzailea osatzen duten kideak: Iker Zinkunegi (presidentea), Eneko Dorronsoro, Pello Galarraga, Karmele Garmendia eta Iñigo Barandiaran.

Azken Udal Hauteskundeetan alderdi politikoek Igeldon lortutako emaitzen arabera izendatu behar zituzten ordezkariak. EH Bilduk 4 izendatu behar zituen eta EAJ/PNVk 1. Herri Kontseiluko kideek alderdiei eskatu zieten orain artean prozesuan lanean aritutako herriko ordezkariak izendatzeko, prozesuari jaraipena eman eta lanean jarraitzeko prest zeudelako. EH Bilduk proposamena onartu eta herriko lau ordezkari izendatu zituen. Barandiaran, berriz, EAJ/PNVk izendatua izan da.

2025 urteko aurrekontuak

Batzorde Kudeatzaileko kideak ari dira pixkanaka eman beharreko pausoak ematen eta Igeldoko Entitatea martxan jartzen.

Apirilaren 8an Entitatearen lehenengo auzo batzarra egin zuten (Plenoa). Bertan, besteak beste, 2025 urteko aurrekontuei behin behineko onarpena eman zieten. 15 egun baliagarriko epean erakusketan egon da nahi duenak aztertu eta erreklamazioak egiteko. Epe hori pasata, eta erreklamaziorik egin ez denez, onartuta geratu dira aurrekontuak.

Maiatzaren 8an bigarren auzo batzarra egin zuen Igeldoko Entitateak eta bertan Aurrekontuak, lanpostuen sorrera eta identifikazio irudia izan zituzten hizketagai, besteak beste.

Plenoak hilean behin

Auzo batzar edo plenoen maiztasunak ere zehaztu dituzte eta momentuz, hilabetero izango dira. Hileko lehenengo ostegunetan izango dira 20:00etan Itsas Aurren. Plenoak irekiak dira eta

edozein herritar gerturatu daiteke. Horrez gain, Plenoetan hartzen diren erabakiak edo lantzen den edukia publikoa da eta norbaitek eskuratu nahiko balu, eskatu besterik ez du.

Egoitza elektronikoa martxan

Apirilaren erdiaz geroztik, Igeldoko Entitatearen egoitza elektronikoa ere martxan dago. Herritarrek tramiteak egin ditzakete online. Hala ere, erabat osatzea falta da oraindik.

Bitariko batzordea lanean

Igeldoko Entitatea sortu bada ere, oraindik badira hainbat kontu Donostiako Udalarekin landu eta koordinatu behar direnak. Dagoeneko Igeldoko Entitatearen eskumenak direnak daude alde batetik, eta bestetik, bigarren fase batean transferitzeko geratu direnak, besteak beste. Lanketa guzti hori egiteko, bitariko batzordea osatu dute Igeldoko Entitateak eta Donostiako Udalak. Bi aldeetako ordezkari eta teknikariak daude bertan.

Sorrera Festa borobila

Behin Igeldoko Entitatea sortuta eta martxan jarrita, Sorrera Festa egitea falta zen. Eta hori ere iritsi zen! Martxoaren 16an izan zen eta benetan ospakizun borobila atera zen. Denetarik izan zuen festak, Igeldo herria denaren erakusgarri. Urte guzti hauetan hainbat eta hainbat herritarrek egindako lanaren aitortza ere egin zen eta momentu hunkigarriak bizitu zituzten plazara gerturatutakoek. Etapa berriari begira, mezu argia: «Jarrai dezagun herria egiten!»





Aita Orkolagak leku aproposa topatu zuen Igeldon eguraldi iragarpenak egiteko.

IGELDOKO METEOROLOGIA-BEHATOKIA:

120 urteko igeldoarra: Behatokia

Igeldoko Meteorologia-Behatokia non dagoen denok dakigu, baina zer dakigu herriko altxor honi buruz? 120 urte betetzear den honetan, gehiago ezagutu eta baloreen jartzeko aprobetxatu nahi izan dugu.

Herritik Orioko mugaraino luzatzen da Aita Orkolaga kalea, Igeldon dugun kalerik luzeenetarikoa. Baina kale izan baino lehen, pertsona izan zen.

Aita Orkolaga hernaniarrak lortu zuen toki egokia, halako batean: Igeldon behar zuen eguraldi iragarpenak egiteko behatokia. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru apurrari esker, Igeldoko Meteorologia-Behatokia sortu zuen, 1905eko uztailaren 1ean; hau da, duela 120 urte. Arrantzale maitatuak lagundu ahalko zituen, azkenean!

Batetik, iragarpenak. 24 ordu lehenago, 1912ko abuztuaren 12ko hartan ekaitza izango zela iragarri zuen Orkolagak, Igeldotik. Baina eguraldia bikaina zen eta arrantza oparoa; zaila zen galerna etorriko zela sinestea. Galiziatik Baionara arte zabaldu zuen iragarpena, eta ontzi asko geratu zen etxean, Orkolaga entzun ondoren. 15 bapora eta 143 arrantzale urperatu ziren. Gehiago izan zitezkeen, baina iragarpenak eragotzi zuen.

Bestetik, 120 urteko historiarekin, eguratsa irakurritz,

klima bera da Behatokiak jasotzen duena.

Behatokia baino lehen zer?

Behatokiaren sortzailea Hernanin jaio zen, baina 15 urte-ekin Argentinara joan zen, osasun arazoak konponduko zituelakoan. Ordurako bazuen eguratsari begiratzeko zaletasunik. 1883an Zarautzko bikario izendatu zuten, eta han arrantzaleen bizimodua ezagutu zuen. Xehetasun gehiago ezagutu nahi baduzu, jo Jabier Iraolak idatzitako liburura.

Iragarpenak eta arrantzaleak, beraz. Kontua da, ospe pixka bat irabazi zuela; arrantzaleek eta baserritarrek kasu egiten zioten, eta egunkariak haren iragarpenak argitaratzeko pronto egoten ziren. Horregatik animatu ziren Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diru pixka bat jartzera. Hasiera hartan Gudamendi inguruan omen zuen behatoki bat, eta ondoren Eulalia Eneara aldatu zen, Iraolaren arabera. Baina 1905ean gaur egun duen Haize

BITXIKERIAK

- Aita Orkolaga Igeldoko hilerrian dago lurperatuta, Behatokitik metro gutxira. Itsaso aldera dagoen horman, mendebaldeko iskiean topatuko duzue, hainbat seniderekin batera.
- Behatokia dagoen eraikuntza indiano baten baserria zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak erosi baino lehen. Haize Eder du izena.
- 1913an haririk gabeko telegrafoa jarri zuten Behatokian: iragarpenak lau haizeetara zabaltzeko urrats garrantzitsua izan zen.
- Doportoren garaian itsaso-iragarpena egin eta Ternuaraino transmititzen zuten, Radio Costera-ren bitartez; bueltan, hango arrantzaleen berri jasotzen zuen, irratiz berriro.

Eder etxea erosi zion Gipuzkoako Foru Aldundiak – Bizkaikoak dirua jartzeari utzi zion ordurako.

Garrantzi historikoa eta zientifikoa

Berezia da Igeldoko Meteorologikoa. 1905. urtetik jasotzen dira datuak bertan, eskuz. Hezetasuna ezagutzeko ile horien sorta bat erabiltzen dute, haren dilatazioa neurtuz; eguzki-orduak neurtzeko, eguzki-izpiak beirazko bola batetik pasarazi eta kartoi mehe batean irudikatzen dutena jasotzen dute; tenperatura neurtzen dute merkuriozko termometro batekin. Eskuz, beraz, baita XXI. mendean ere. Meteorologikoak jasotzen dituen datuak ondo preziatuak dira Europa osoan.

Igeldoko Behatokiaren berezitasuna horixe da, hain zuzen ere: datuen serie homogeneoa duela. Batetik, Orkolagak datuak hartzen zituen bezalaxe hartzen dituztelako gaur egun. Tarte horretan tresneria sartu izan balitz, ezingo lirakeke tresnen aurreko eta ondorengo datuak alderatu; berdin gertatzen da gailu zaharrak berriengatik aldatu beharko balira, ezingo lirakeke datuak konparatu, neurtzeko modua aldatu delako. Langileek 24 orduz datuak modu berean hartuta, datuen jarraitasuna –homogeneitatea– bermatzen dute.

Bestetik, ingurua bera ez delako gehiegi aldatu. Behatokia inguratuz oraindik daude baratzak eta zelaia, Orkolagaren garaian bezala, eta klima aztertzeko altxorra da hori. Eta horrek guztiak –datuak jasotzeko moduak eta ingurua berdintsu mantentzeak– ahalbidetzen du urte guzti hauetan klimaren gora-beherak ederki jarraitu ahal izatea.

Behatokia, gaur egun

Datu klimatologikoak eta eguraldi-iragarpenak egiteko behar diren datuak lortzeaz gain, fenologia behatzen dute. Alegia, bizidunen ziklo biologikoen eta faktore klimatikoen artean dagoen erlazioa aztertzen dute. Hori egiteko, Igeldoko bide jakin batzuetatik oinez ibili eta hartan behatzen dituzte, adibidez, zuhaitz jakin batzuk;

Klima vs eguraldia

Eguraldia une eta toki jakin bateko atmosferaren egoera da; klima denbora luze batean egiten duen eguraldia da. Klima deskribatzeko zein eguraldia iragartzeko, atmosferaren aldagaiak neurtzen dituzte meteorologoei: tenperatura, presioa, haizea, hezetasuna eta abar.

apuntatzen dute noiz loratu diren, noiz galdu dituzten hostoak... Ondoren datu klimatikoekin gurutzatzen dituzte. Honela jakin dezakegu, esaterako, klima aldaketak nolako eragina duen bizidunengan.

Bestetik, eguzkitiko erradiazioa neurtzen dute, eta, azkenik, kutsadura erradioaktiboa kontrolatzen dute, EHUren eta Segurtasun Nazionaleko Zentroaren gailu banari esker.

Europako itsas-behatoki bakarra da Igeldokoa; bakarra, beraz, itsas-haizearen, hondoko itsasoaren eta uraren tenperaturaren datuak hartzen. Itsas-behatoki zein lur-behatoki izanik, ehun urtetik gorakoa den 15 behatokitako bat da, gainera.

Buena Vistako Angelitok esaten zuenez, Behatokia ezaguna zelako, Europako edozein txokotatik postalak iristen ziren, “Igeldo” soilik idatzita; ez “Donostia”, ez “Gipuzkoa”, ez “Basque Country”: “Igeldo” idatzi eta bazekiten nora ekarri behar zuten gutuna. Eta zuk, eza-gutzen al duzu Igeldoko Meteorologia Behatokia?

BEHATOKIAREN ARDURADUNAK

1905-1914 Juan Miguel Orkolaga Legarra: Behatokia sortu zuen, arrantzaleak laguntzeko.

1915-1919 Pedro Orkolaga Legarra: Juan Miguelen anaia geratu zen Behatokian, baina ez zion lanari garrantzirik eman eta garai honetako behaketa eskasek ez dute fidagarritasunik.

1927-1936 Mariano Doporto: mundurari begira zegoen, eta munduak Igeldori begira ziezaion lortu zuen.

1936-1965 Justiniano García Polo: Behatokian eta Behatokiarentzat bizi zen, eguneko eta gaueko neurketak eginez.

1940-1979 Carlos Santamaria Ansa: INM Euskadiren zuzendaria zen, baina ez zen Behatokiaz arduratu.

1978-2005 Jose Ignazio Alvarez Usabiaga: Behatokiaren defendatzaile sutsua, datuak eskuz hartzen jarraitzeko jarrera irmoa erakutsi zuen.

2002-gaur egun Margarita Martín Giménez, AEMETen zuzendari, Euskadin: Usabiagaren ldo beretik, datuen serie homogeneoa lortzea du helburu, horretarako datuak eskuz hartzen jarraitu behar badute ere.

Jubilatuek ekintza ugari egin dituzte martxoa eta apirilean



Heriotza duinari buruzko hitzaldia. Aurretiazko Borondateen Dokumentua betetzen.



Patxi Izagirre psikologoaren hitzaldia.



Herriko hurrekin Musikoterapia tailerrean.



Herriko eskolako hurrekin Kantujirako entsaioan.



Ibilaldia Orioko barrara.



San Telmo Museora bisita.

Komunitate energetikoak bere lehen proiektu fotovoltaikoa gauzatzea lortu du!

Foru Aldundiaren diru laguntza ere jaso dute proiektua aurrera eramateko: 75.000 euro. Gaiarekin lotuta, formazio eta hitzaldiak antolatuko dituzte.

Apirilaren 10ean burutu zuen IKEK bazkideen batzar orokorra, eta albiste pozgarri batekin hasi zuten bilkura: lehen proiektu fotovoltaikoa burutzea lortu da!

Kontseilu Errektoreko kideek adierazi dute oztopoz eta arazoz betetako ibilbidea izan dela. Baina, azkenean, plaka fotovoltaikoak instalatzeko lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako epean amaitzea lortu da, eta horren baitan zegoenez erakundeak esleitu zion 75.000 euroko dirulaguntza jasotzea, baldintza hori beteta, aldundiak energia-komunitateari baieztatu dio zenbateko osoa jasoko duela.

Hortaz, proiektuan parte hartu duten guztien laguntzari esker, bi

urteko ibilbide luze eta malkartsuaren ondoren lehen proiektua gauzatzea lortu du.

2025 urterako helburuak

2025erako, berriz, batzarrean azaldu zen bezala, ez da proiektu berririk aurkeztuko, eta helburu batzuk markatu dira. Lehen proiektuari lotutako lanekin jarraituko da; lehenik eta behin, Iberdrolaren esku dago instalazio horiek martxan jarri ahal izatea, eta beraz, kudeaketa horiek egin beharko dira, eta horiek abian direnean, monitorizazio sistema martxan jarri bazkide bakoitzaren autokontsumo maila neurtzeko eta, besteak beste, gai honi buruzko beharrezkoak ikusten diren formazio

eta hitzaldiak antolatzeko.

Bestalde, komunitate energetikoak eratu berri den Toki Entitate Txikiko ordezkariekin elkarlanean aritu nahi du, eta batzordeko kideekin eta gainerako eragileekin batera bide hori jorratzeko bere prestasuna azaldu du.

IKEk bere bideari ekin besterik ez dio egin, eta adierazi dute aurreko lerroetan aipatutako helburuak eta proiektuak gauzatzeko herritar gehiago behar dituztela bidelagun gisa. IKE Kooperatibaren erronkek Igeldoko komunitate osoari eragiten dioten erronkak direla-eta, herritarrak animatu nahi dituzte egitasmoarekin bat egitera eta bertako bazkide egitera.

Historia lantzen ari dira Eskolan

Eskolan azken bi hilabeteak besterik ez zaizkie geratzen ikasturtea bukatzeko eta azken proiektuarekin burubelarri dabilta. Historia lantzen ari dira.

HH mailan, Eskola jatetxe bihurtu eta menuak eta elikadura lantzen ari dira. Ondoren, familiei bazkaria zerbitzatuko diete ikasleek.

1. zikloan lehengo, oraingo eta etorkizuneko etxetaz arituko dira. Historian zehar erabilitako materiala eta hauen ezaugarriak aztertuko dituzte.

2. zikloan Historian zehar aurkitutako energia motak landuko dituzte eta azalpenarekin bideoa partekatuko dute.

3. zikloko ikasleek, berriz, Historian zehar izandako asmakuntza garrantzitsuenak azertu eta



1. Ziklokoek Pokemonen liburua egin zuten aurreko proiektuan eta azalpenak eman zizkieten familiei.

hauekin infografia bat egingo dute. Ondoren, pelikula bat prestatuko dute ekainean familiei erakusteko.

Bestalde, HHko ikasleak herriko aiton amonekin Musikoterapiako

saio batean egon ziren eta LH-ko ikasleak Kantujirakoekin batera abesti batzuk entsaiatzen ari dira Udaberriko Festan denak batera abestu ahal izateko.

INAUTERIAK

Mozorroitu eta festara!

Inauterietan murgiltzeko aukera ere izan zuten herritarrek. Martxoaren 1ean hainbat ekintza antolatu zituzten kultur arlotik. Plazan elkartu eta batzuk maskarak egiten aritu ziren bitartean, beste batzuk jolasetan ibili ziren: ping-pong, dardoak... Animatu zirenek desfile/antzerkia ere egin zuten eta ondoren, luntxaz gozatu zuten haur eta helduek elkarrekin. Bukatzeko, karaokea eta dantza egin zuten Goazenekin Itsas Aurren.



MARTXOAK 8

Ekintza aberasgarriak

Martxoaren 8aren bueltan, herriko emakumeek hainbat ekintza antolatu zituzten Igeldon, oso aberasgarriak izan zirenak. Igeldon zehar egindako ibilaldiak (informazioz eta kontakizunez osatuak) eta ondorengo tertuliak oso harre-ra ona izan zuten. Baita manifestaziora elkarrekin joateko deialdiak eta urteroko afariak ere. Aurtengoan Calongen elkartu ziren 50 emakume. Primeran afaldu eta giro ederrean ibili ziren. Bingoan jolastuz, bertako produktuz osatutako saski ederraren zozketa egin zuten. Intza



Etxeberria izan zen irabazlea. Linearekin, IKOn gastatzeko bonoa ere irabazi zuen Nieves Soroak.

LAPA TXAPELKETA

Jose Luis eta Iñigo irabazle

Azken urteetan Musak Igeldon izandako beherakada ikusita, aurten, Lapa Txapelketa jokatzearabaki zuten antolatzaileek eta egun bakarrean egitea. Hain zuzen, martxoaren 7an jokatu zen. Jose Luis eta Iñigo izan ziren irabazleak eta Paulo eta Mendiluze azpitxapeldunak. Irabazleek lapa sariak eta arkume bana eraman zituzten. Azpitxapeldunek, berriz, arkume bat eta bi sagardo botila.



PANPA LANDAREA



Espezie aberastasuna, Tximistarrin

Panpa Lezka landare inbaditzailea kentzeko kanpaina abian da Igeldon Diputazioaren eskutik. Tximistarrin garbiketa egina zuten eta martxoaren 9an bertako zuhaitzak landatzeko ekimena egin zuten hainbat herritarrek. 35 lagun elkartu ziren eta 225 landare sartu zituzten, 16 espezie desberdinetakoak.

«Haur eta heldu adi-adi entzun genituen azalpenak. Aitzurrak hartu eta lanean jarri ginen, zintzo demonio. Ordu t'erdian arroketarainoko bidea aberastu genuen modu naturalean aterako liratekeen zuhaitz eta zuhaixkez, ametzez, karraskiloz, otsolizarrez, zuhandorrez, arte-latzez, elorriz...», kontatu dute bertaratutakoek.

PALA TXAPELKETA

Txapelak banatuta

Martxoaren 14an jokatu zituzten Neguko Pala Txapelketako finalak. Honakoak izan ziren emaitzak:

Bigarren mailan: Esoain-Lizaso 16 / Alkorta-Belauntza 25.

Lehenengo mailan: Elejalde-San Miguel 25/Loidi-Loidi 19.

Nesketan: Laburu-Lertxundi 13 / Mitxelena-Mitxelena 25.



LASTURRERA IRTEERA



Jolasak, espeleologia, eskulanak... eta parranda!

Aurten ere, Gabon eskean ateratako umeekin asteburu pasako irteera antolatu du guraso talde batek. Lasturrera joan ziren martxoaren 29 eta 30eko asteburuan. Larunbat goizean jolasak egin zituzten eta arratsaldean zaharrenak espeleologia egitera joan ziren. Txikienek berriz, eskulanak egin zituzten aterpetxean. Afalondoren, Gaubela egin zuten eta zaharrenak goizeko ordu txikiak arte ibili ziren!

Igandean, egun pasa joateko aukera izan zuten Haur Hezkuntzako umeek familiekin, eta denek batera, mendi buelta egin zuten. Ondoren, bazkaldu, arratsaldea lasai pasa eta Igeldorako autobusa hartu zuten. Asteburu guztia kontuan hartuta, 60 lagun inguru elkartu ziren.

UDABERRI JAIA 2025

MAIATZAK 10 LARUNBATA

19:00 Poltsiko antzerkia "Igogailu batean amaitu zen mundua" Itsas Aurren

MAIATZAK 15 OSTEGUNA

19:00 Mikel Laboaren inguruko saio musikatua Itsas Aurren

20:30 Afaria Etxe Nagusin Alkorta anai-arrebek trikitixaz girotuta

Izena emateko zerrendak IKOn eta Txapelan **maiatzak 11** arte

MAIATZAK 16 OSTIRALA

17:00 - 18:00 "Parketarrak" plazan

18:00- 20:00 Sendabelar tailerra Elorri Iguinizen eskutik Itsas Aurren

MAIATZAK 17 LARUNBATA

17:00 Hockey saio irekia ume eta gaztetxoentzat kantxan (LH tik gora)

19:00 Andoni magoaren "DesOrekatua" ikuskizuna frontoian

20:30 Afaria: kostilla parrillan plazan

-Itsas Aurreko barra irekita egongo da-

22:00 *Morau* kantautorearen kontzertua Itsas Aurren

MAIATZAK 18 IGANDEA

* Errepidean mozketak egongo dira Emakumeen Itzulia dela eta

11:00 Kantujira Kaxkoan zehar

12:00 Ardo dastaketa plazan

12:30 Motozerra taila erakustaldia *Ikusgarriren* eskutik plazan

MAIATZAK 31 LARUNBATA

10:00 Parte hartze prozesua: ibilaldia Kaxkoan

19:00 Antzerkia "Ali Baba eta 40 lapurrak" *Borobil Teatroaren* eskutik Plazan

